

## BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA

2016.02.03

### Batzarraren **AKTA**

#### **BERTARATUAK**

**Juan Maria Aburto** (Bilboko alkatea, presidentea)

**Koldobika Narbaiza** (Euskara eta Hezkuntzako zinegotzia, presidente ordea)

**Nekane Alonso** (Kulturako zinegotzia)

**Marta Ajuria** (Ekonomia eta Ogasuneko zinegotzia)

**Xabier Otxandiano** (Garapen Ekonomiko, Merkataritza eta Enpleguko zinegotzia)

**Ainara Aretxabaleta** (EAJ-PNV udal taldea)

**Alba Fatuarte** (EH-Bildu Udal taldea)

**Alexander Arauzo** (GOAZEN BILBAO Udal taldea)

**Jesus SANZ SALAMANCA** (PP Udal taldea)

**Inés IBAÑEZ DE MAEZTU** (PSE-PSOE Udal taldea)

**Amaia Arenal** (Udalberri Udal taldea)

**Jone Unzueta** (Euskara eta Hezkuntzako zuzendaria)

**Jon Simon Gartzia** (Eusko Jauriaritza-Hezkuntza Saila)

**Ana de Castro** (Bizkaiko Foru Aldundia)

**Genar Andrinua** (Athletic Club)

**Olatz Elgea** (Bilbao Dendak)

**Jon Maguregi** (Bilboko euskaltegiak)

**Jokin Gorozika** (Labayru Fundazioa)

**Libe Agirre** (kazetaria)

**Xabier Monasterio** (kultur eragilea)

**Andres Urrutia Badiolak** (Euskaltzaindia) etorri ezina adierazi du.

Bilbon, 2016ko otsailaren 3an, arratsaldeko 17:30ean, Bilboko Euskararen Aholku Batzordeko kideak bildu dira ondoren azaldutako gaiak aztertzeko.

## **EGUNEKO AZTERGAIK**

### **1.- Alkatearen hitzak.**

Kontseiluaren lehen batzarra denez, alkateak batzorde kideei berba eman die, bakoitzak bere burua aurkeztu dezan.

Ostean, kide guztien presentzia eskertu eta Euskaltzainburu den Andres Urrutiaren ezin etorria adierazi ondoren, batzorde berriaren helburuez mintzatu da, bereziki arlo bi azpimarratu duela.

Batetik, elkarlanerako tresna dela Bilboko Euskararen Aholku Batzordea, eta ez inoren kontra egitekoa, elkarlana herri erakundeen artekoa eta elkarlana herri administrazioen eta gizarte eragileen artekoa. Horixe dela bide zuzena, are gehiago euskararen normalizazioa helburua denean.

Bestetik, batzordearen aholkulari izaera gogoratu du. Ez da erabakitzeko ahalmena duen foroa, baina hala ere hitza eman du batzordeak egingo dituen proposamenak eta iradokizunak Udalak bere egin, bideratu eta aurrera ateratzeko borondatea.

Dena dela, eta adibide moduan gogora ekarri du, Bilboko datuak ikusita, euskarari dagokionez baieztar daitekeela zortzi barrutien artean ez dagoela alde nabarmenik euskaldunen portzentajeetan. Egoera soziolinguistiko honek bidea ematen du udalerrri osoa hartuko duen hizkuntza politika bakarra gauzatzeko, pozgarria eraginkortasunaren aldetik, kontuan hartuta Udala dela herritarrengandik hurbilen den erakunde publikoa.

### **2.- Batzorde kideen aurkezpena.**

Aurreko puntuan egin, hurrengo aztergai.

### **3.- Batzordearen zereginak eta funtzionamendua.**

Koldo Narbaizak azaldu ditu helburuak, batzordea Udalaren hizkuntza politikan tresna eraginkorra izango dela azpimarratuz, herritarren eta administrazioaren arteko elkarlana bermea den aldetik.

Foroa da batzordea: aholkularitza, informazioa, eztabaida, azterketa eta proposamenak egiteko organo iraunkorra. Bilbon euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko tresna egokia, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko lagunduko duena eta batzorde kideen ekimenak aurkeztu eta aztertzeko bidea.

Batzordearen zeregin nagusia ESEP Bilbon gauzatzeko bitartekoa izatea da, plana onetsi behar duen udal organoari aurkeztea. Urteroko kudeaketa planaren jarraipena

egitea eta, Udalak eskatuz gero, euskararen normalizazioak udalerrian sortzen dituen gaien inguruko azterketa egitea.

Hasierako batzar honen ostean maiatz-ekainean hurrengo egiteko asmoa azaldu du, bertan puntu nagusi bi aztertzeko: batzordearen araudia eta egun Bilboko Udalak euskara normalizatzeko burutzen dituen ekimenen eta programen azterketa.

Jone Unzuetak osotu egin du puntu hau, Euskararen Aholku Batzordea sortzeko orduan Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak funtzionamendurako emandako gomendioak mahai gainean jarriz (*batzorde kideen karpetan sartutako dokumentua*), irizpideak oso oinarrizkoak direla *-berauren laburpena egin du-* eta zuzentzen duen Saila araudi osotuago bat prestatzen ari dela adieraziz.

Asmoa da, batzordekideei ondo iritziz gero, 2016ko otsailaren 10eko Gobernu Batzordera akordio proposamena luzatzea Bilboko Euskararen Aholku Batzordea onetsia izan dadin eta aurrerantzean araudia onartzea kide guztion adostasunean. Horretarako, araudiaren zirriborroa batzorde kide guztiei bidaliko zaie garaiz, hurrengo batzarrean aztertua, eztabaidatua eta onartua izan dadin.

#### **4.- ESEP zer den**

Jose Joakin Gallastegik oinarrizko kontzeptu batzuen azalpenari ekin dio.

ESEP: Euskara Suspertzeko Ekintza Plana, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako (HPS) diseinatu eta koordinatu Autonomia Elkarteke herri administrazio guztietarako. Hizkuntzaren jardun orokorra hamasei ataletan sailkatzen ditu, neurrien planifikazioa errazte aldera.

Atalak familia bidezko transmisioa, irakaskuntza, euskalduntzea, aisialdia, kirola, lan-mundua eta abar dira. Atal hauetako bat administrazioari dagokio, eta Bilboko Udalean Euskararen Erabilera Plana martxan dela adierazi du, 5. Fasean (2013-1017) hain zuzen, eta planaren koordinazioaz eta jarraipenaz Udal barruko ENBA (Euskara Normalizatzeko Batzordea) izeneko batzordea arduratzen dela.

ESEP Bilbokoa: ESEP orokorraren aplikazioa Bilbo udalerrian. Udaleko Gobernu Batzordeak 2014ko otsailaren 12an onartua 2014-2017 tarterako. Udalerrian euskararen erabilera indartzeko trena nagusia. Bertan azaltzen dira euskararen normalizazioa helburu duten Udalaren ekimenak eta programak *-euskaraz egiten direnak gehiago dira, jakina-*, modu laburtuan. Hurrengo batzarrerako kideek programa horien berri zehatzagoa eta sakonagoa izango dute alde zuzetik. Dokumentu biak, orokorra eta Bilbokoa, zabaldu egin zaie kide guztiei batzar honetarako deialdiarekin batera.

#### **5.- Galderak eta iradokizunak**

Alba Fatuarterek, Bilboko Euskararen Aholku Batzordea sortu dela eta, bere poztasuna adierazten du, beraien udal taldea aspalditik ari zelako batzordea osaketa eskatzen. Hala ere, aipatu egiten du aurreko legegaldian (2011-2015) Euskara, Gazteria eta Kirol Saileko zinegotziarekin Udalbatzarreko lau alderdiek euskararen inguruan adostutako dokumentuaren garrantzia eta beharrezkoa ikusten du aipatutako dokumentuaren bai

espiritua bai mamia sortu berria den batzorde honetan txeratzea. Lau taldeen arteko lanketa sakonaren ondorioa dela dokumentua, eta oraingo legealdiak dituen hilabeteetan ere euskara zinegotziarekin harremanak bide horretatik jarraitzen dutela. Bestetik, iruditzen zaio batzordearen osaketan hutsuneren bat edo beste dagoela, euskarazko hedabideak edo euskara elkarteak kasu, nahiz eta modu pertsonalean kide batzuk aipatutako esparrukoak izan.

Alkateak zehazten du euskararen normalizazioan aro berri baten atarian gaudela, eragile guztiok batera ahalegin handia egitekoa, baina denak-denak ezin direla egon batzordean, horregatik dela batzorde.

Koldo Narbaizak adierazten du aurreko legealdian adostutako dokumentua zabaldu egingo dela batzorde kide guztien artean. Era berean, batzordearen osaketaz, ez zaiola inori aterik ixten eta hurrengo batzarrean landuko den araudian gauza guzti hauek zehaztu beharko direla.

Alkateak batutako guztiei Udalaren izenean eskerrak emanez, eta batzarra bukatutzat ematearekin batera, batzordearen lanerako izango den helbide elektronikoaren berri mean zuen: [eab@bilbao.eus](mailto:eab@bilbao.eus)

Ez da galdera ez eskari gehiagorik egin eta batzarrari amaiera eman zaio 18:20an.

Bilbon, 2016ko otsailaren 3an.

**BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO IDAZKARIA**  
Jose Joakin Gallastegi Villanueva